



Usurbilgo Udala



**USURBILGO NERABEENTZAKO UDAL ZERBITZUA KONTRATATZEKO
ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK.
PUBLIZITATEDUN PROZEDURA NEGOZIATUA**

I- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN GAIA

Kontratu honen objektua da Usurbilgo nerabeentzako udal zerbitzua planifikatu, artatu eta kudeatzeko zerbitzua ematea.

Kontratazio hau zerbitzu-kontratu administratibo gisa gauzatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 10. artikulua xedatzen duenaren arabera, eta arau bereko 301. artikulua eta hurrengoek arautzen dute.

2.- HAUTAKETA ETA ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Zerbitzuaren kontratua adjudikatuko da publizitadedun prozedura negoziatuaren bidez. Adjudikazioa kontratazio organoak behar bezala justifikatuta aukeratutako izangaiaren alde egingo da, beste izangai batzuekin kontsultatu eta kontratuko baldintzak horietako batekin edo gehiagorekin negoziatu eta gero, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 169.2 artikulua arabera.



Usurbilgo Udala



Eskaintzak negoziatzeko eta eskaintza ekonomiko onena erabakitzeko kontuan hartu behar dira kontratuaren xedearekin zerikusi zuzena duten alderdiak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 150.1 artikulua eta Agiri honetako 24. klausularen arabera.

3.- KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Kontratuaren lehen indarraldia kontratua sinatzen denetik 2 urtetakoa izango da (nahiz eta zerbitzua 22 hilabete izango diren, abuztuan ez baita zerbitzurik ematen). Organo kontratugileak hala erabakitzen badu, beste 7 hilabetez (abuztua kanpo) luzatu ahal izango da, elkarren artean adostu eta gero.

4.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa hileko gehienez ere 3.409'09 euro izango dira, BEZ-ik gabe (bere kasuan, gehienez %21eko BEZ 715'91 euro, guztira BEZ barne 4.125 euro).

Urte bateko 11 hilabeteko (abuztuan ez baitago zerbitzurik) zerbitzuaren gehienezko prezioa 37.499'99 euro izango dira, BEZ-ik gabe (%21eko BEZ 7.875 euro, guztira 45.374'99 euro). Zerbitzuaren aurrekontu estimatua da kontratuaren lehen indarraldian (lehen bi urtetan, 22 hilabete) 74.999'98 euro (BEZ-ik gabe), %21eko BEZ barne 90.749'98 €

Luzapena burutuz gero, 7 hilabeteko (abuztua kanpo) luzapenaren aurrekontua 23.863'63 euro dira (BEZ-ik gabe), %21eko BEZ barne 28.874'99 €



Usurbilgo Udala



Hortaz, kontratuaren guztirako iraupenaren gehieneko prezioa 98.863'61 euro izango dira (%21eko BEZ barne 119.624'97 euro).

Prezio horretan sartuta egongo dira kontratuaren ondorioz sortutako gastu guztiak, hala nola lantaldearen lansariak, gastu materialak, gastu orokorrak eta orotariko zerga, tasa eta arbitrioak.

5.- FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioari aurre egiteko aurreikusita dago indarrean dagoen aurrekontuko 1.4400.226.326.00.03 kontu-atala.

6.- ORDAINTZEKO MODUA

Ordainketa hileroko faktura bidez egingo da, behin faktura aurkeztu eta zerbitzuko arduradunak faktura egiaztatu ondoren.

Faktura onartu eta gero, Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 216. artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko da.

Dena den, Udalak baldintza orrietan zehazten den zerbitzu osoa jasotzen ez badu, Usurbilgo Udalak ez du konpromisorik hartzen zehaztutako kopuruak oso-osorik ordaintzeko.



Usurbilgo Udala



7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honen prezioak ez dira berrikusiko kontratuaren iraupen epe guztian, luzapena barne.

8.- BERMEAK

Hilabete bateko epea ezarri da, kontratua amaitzen den egunetik hasita, berme gisa ezarri dena, Sektore Publikoaren Kontratuen Legean Testu Bateratuaren eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean jasota datozen ondorioetarako.

Garantia epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak.

9.- KONTRATUA BURUTZEA

Kontratuaren jabeak bere gain hartzen ditu kontratua burutzeak dakartzan arriskuak. Ezin izango da zerbitzurik azpikontratatu.

Kontratistak, zerbitzua antolatzerakoan eta ematerakoan, zehazki bete beharko ditu orri honetan jasotako baldintzak eta agindu teknikoen orriko espezifikazioak. Gainera, Udalak zuzenduko, ikuskatuko eta kontrolatuko du zerbitzua, eta horrek idatziz zein ahoz gauzatuko ditu eskumen horiek.

Kontratista izango da egindako lanen eta emandako zerbitzuen kalitatearen erantzule. Kontratista izango da erantzule, baita ere, kontratua betetzean ez-egiterik, akatsik, egokia



Usurbilgo Udala



ez den metodorik edo ondorio okerrik sortzen bada, eta horrek ondoriorik eragiten badie Administrazioari edo hirugarrenei.

Kontratastak beharrezko ekipamendu eta bitartekariak jarri beharko ditu lanak ondo gauzatu eta kontratua eskaturiko epean garatzeko, beharrezko langileak ere kontratatuz. Kontratuaren jabeak arduradun bat izendatuko du, kontratuaren jabearen eta Udaleko langileen arteko harremanak zuzenean koordinatzeko. Udaleko Zerbitzu Teknikoen eta kontratuaren jabearen artean egin behar diren bileren kopuru eta maiztasuna eta erabili beharreko informazioa Udalak zehaztuko du. Era berean, Udalak informazioa bildu eta esleipenduna egiten ari den lana gainbegiratu ahal izango du. Esleipendunak kontratua behar bezala burutzeko beharrezko diren zerbitzu guztiak egingo ditu, bestelako ordainik gabe, lan-bilera eta informazio-bileratara joatea barne.

Gainera, kontratuaren jabeak kontratatutako zerbitzuen inguruan ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpean gorde behar ditu, datu horiek konfidentzialak direlako. Kontratuaren jabeak Administrazioari eta eraginda ikusi diren pertsoneri kalte-ordainak eman beharko dizkie isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalteen truke. Kontratua betetzeko izaera pertsonaleko datuak erabili behar baldin baditu, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araubidea beteko du. Kontratututako zerbitzua bukatu ondoren, datu pertsonalak Udalari itzuliko dizkio.

10.- ESLEIPENDUNAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratista behartuta dago lan arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzen, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun eta higienekoak, kontratu honetako zerbitzuetan erabiltzen dituen langileei buruz, eta Administrazioa dago hori bete ez izatearen erantzukizunetik salbuetsita. Usurbilgo Udalak ez du inongo lan-harremanik



Usurbilgo Udala



izango zerbitzuan lanean ari diren langileekiko.

Gainera, esleipendunak bere gain hartuko ditu, bere kasuan, zerbitzu horiek gaur egun egiten dituzten langileak, indarreango Lan Hitzarmenaren arabera, eta subrogaturik geratuko da aurreko adjudikaziodunak zeuzkan laneko eskubideetan eta obligazioetan, Lan Hitzarmenak zehazten duenaren menpe. Bere kasuan, bere gain hartu beharreko langileen artean daude, kontrataren titularitate aldaketa egitean El egoeran dauden langileak, amatasun atsedenean, behin-behinekoz ezintasun egoeran, eszedentzian edo oporretan daudenak. Atxikitako pertsonaren datuak, hitzarmen, soldata, antzintasun eta abarrekin, agiri honetako **I. ERANSKIN**ean datoz jasota.

11.- KONTRATU-JABEAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZEN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEEN AURREAN

Kontratuaren jabea izango da kontratua betetzeko egin beharreko lanen ondorioz beste batzuei eragindako kalteen eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaaren 214. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Kontratua betetzean, esleipendunak bere jardueragatik eragindako kalteei erantzuteko aseguruia eduki beharko du, gutxienez **300.000 eurokoa**, gerta litezkeen kalte guztiak bere gain hartzeko. Baldintza hau frogatzeko, jatorrizko poliza eta primen ordainagiriak edo aseguru-etxearen ziurtagiria aurkeztu beharko du. Baldintza honetan ezarritako eskakizunak ez egiaztatzea kontratua amaitutzat emateko arrazoi izango da, izan ere, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren 223 artikulua argitara, betebeharrak hori funtsezko kontratu-betebeharra da.



Usurbilgo Udala



12.- KONTRATUA ALDATZEA

Herri onurako arrazoiak direlako Udalak kontratua aldatzea izango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren I. Liburuko V. Tituluan ezarritako kasuetan eta moduan.

13.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Hizkuntza-gaitasunari buruz:

Usurbilgo Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Usurbilgo Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik Gaztelekuko langileek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu behar dute.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Zerbitzu hizkuntza, erabilera herritarrekin

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta, zerbitzu hizkuntza euskara izango da.

Usurbilgo Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan...) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazio idatziak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz egingo dira.

Hala ere, kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.



Usurbilgo Udala



Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta gisa bereko komunikazio orokorrak euskaraz egingo dira.

Harremanak administrazioarekin

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Usurbilgo Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jardura guztietan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Era berean, udaletik jasotzen diren idatziak euskaraz jasoko ditu enpresa adjudikazio-hartzaileak.

Jarraipena

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena: Usurbilgo Udaleko Gazteria Sailak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena.

14.- ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK

Kontratuaren jabeak baldintzen orriotan edo eskakizun teknikoen orrietan ezarritako betebeharrak edo kontratatutako zerbitzuak hobeto burutzeko Udalak emandako aginduak betetzen ez baditu, Udalak ahalmena izango du kontratuaren jabeari kontratuak duen aurrekontuko %10eko zehapena ezartzeko, Kontratuei buruzko Legearen 212.1 artikulua arabera.

Enpresari eskaturiko dokumentazioan kontratu hau aurrera eramateko zehazten dituzten baliabide material edo langileekin ez bada kontratua gauzatzen, Udalak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

Egun batean, pertsonalaren falta dela eta zerbitzurik ez ematea ere, 3/2011 Errege



Usurbilgo Udala



Dekretu Legegilearen 223.f) artikuluan zehaztutako ondorioetarako, kontratuaren oinarritzko betebeharra izango da, eta hortaz Udalak kontratua amaitzea erabaki ahal izango du, aipatu legean xedatzen den modua.

Kontratuaren jabeak bere errua dela eta ez baditu kontratuari lotutako epeak betetzen, Administrazioak aukera izango du, alde batetik kontratua amaitzeko (kontratuaren jabeak bermea galduko luke) edo, beste alde batetik, zehapena jartzeko, hain zuzen ere eguneko 1.000 euroko 0,20ko zehapena, kontratuaren prezio osoari aplikatuta.

Atzerapenengatik jarritako zehapenak kontratuaren prezioaren %5eko multiplora iristen badira, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratua amaitutzat emateko edo, beste zigor batzuk jarri, eta kontratuarekin jarraitzeko.

Bidezko arrazoi bategatik edo esleipendunari eta horren langileei ez dagokien ezinbesteko arrazoi bategatik, kontratuaren jabeak jakinarazten badu ezin duela aurreikusitako zerbitzuren bat eman, zehapenik ez ezartzeko aukera izango du Administrazioak, kontratuaren jabeak akatsa konpontzeko neurri egokiak eta berehalakoak hartzen baditu. Horrelakorik gertatzen bada, egin gabeko lanei dagokien zenbatekoa kendu egingo zaio kontratuaren prezioari.

Zehapenaren kopurua (irimo bilakatu ondoren) kontratuaren jabeari ordaindu behar zaion hurrengo fakturatik kenduko zaio, edo, bestela, bermetik. Bigarren hori gertatuz gero, kontratuaren jabeak bermea egokitu egin beharko du.

Zehapena lan bat ez egiteak edo oker egiteak eragin badu, kontratuaren prezioaren ordainketa murriztu egingo da, kontratuak agindutako lanetik benetan eta behar bezala burutu den lanaren ehunekora arte. Udaleko Alkateak ebatziko ditu zehapenak, edo horren delegazioa duenak.



Usurbilgo Udala



15.- KONTRATUA AMAITZEA

Administrazio-kontratua hura amaitu edo suntsitu egin delako iraugiko da.

Kontratuaren jabearekin kontratua bete dela iritziko zaio kontratuaren jabeak kontratuaren xedea guztiz betetzen duenean, kontratuko baldintza guztiekin bat etorriz eta Administrazioaren onarpenarekin.

Kontratua amaitutzat joko da kontratua bera edo orriotako baldintzak betetzen ez badira, edo eta Kontratuen Legearen 223. eta 308. artikuluetan adierazitako arrazoiengatik; halaber, kontratua amaitzeak Lege horretako 309. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

16.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Udalak, administrazio-kontratugile gisa, eskubide hauek izango ditu:

- Zerbitzua behar bezala emateko komenigarritzat jotzen dituen jarraibideak eta aginduak ematea.
- Lanen kalitatean, kantitatean, denboran edo lekuan aldaketak agintzea, baldin eta interes publikoak horrela eskatzen badu.

Kontratazio organoak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 210 artikulua araberak, hurrengo eskumen hauek dauzka:



Usurbilgo Udala



- a) Kontratuaren interpretazioa.
- b) Kontratua betetzerakoan egon daitezkeen zalantzak erabakitzea.
- c) Kontratua aldatzea interes publikoko arrazoiengatik.
- d) Kontratua suntsitzea eta horren ondorioak zehaztea. Edozein kasutan, entzunaldia emango zaio kontratistari, eta jarraitu beharko dira azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bategineko 211 artikulua aurreikusten dituen tramiteak.

Udalak zerbitzua ikuskatu eta zainduko du horretarako izendatutako pertsonen bitartez.

Kontratua interpretatzeko, aldatzeko, amaitutzat jotzeko edo horren ondorioak zehazteko kontratazio-organoek hartzen dituzten akordioak berehala betearaziko dira.

II. KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

17.- ESLEIPENAREN TRAMITAZIOA ETA PROZEDURA

Kontratu honen esleipena publizitadedun prozedura negoziatu bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 169-178. artikuluetan jasorikoaren arabera.

Prozedura negoziatua zenbatekoari begira erabiliko denez (174.e) eta kontratuaren prezioa 60.000 €tik gorakoa izanik, kontratazio organoak lizitazio iragarki bat argitaratuko du, 177.2 artikulua arabera. Hala ere, Kontratugilearen profilean egindako iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean egin beharrekoa ordeztu ahal izango du Sektore



Usurbilgo Udala



Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 142.4 artikuluekin bat etorriz.

18.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratazio prozedura honetan fase bi egongo dira:

a) Lehenengo fasean, lizitazioan parte hartzeko hautagaiak aukeratuko dira, hautagai horiek parte hartzeko eskabidea egin eta gero. Lehenengo hautaketa hori egiteko, hautagaien kaudimena baloratuko da, erantzunkizunpeko adierazpen bidez. Gerora kaudimen hori administrazio-baldintza zehatzen orri hauetako 28. puntuan xedatutakoaren bitartez kreditatuko da.

b) Bigarren fasean kontratuaren esleipenduna aukeratuko da, baldintza-agiri honetako 24. puntuan zehazten diren diren esleipen irizpideetan oinarrituta.

19.- LIZITAZIOAN PARTE HARTZEKO ESKARIA AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Usurbilgo Udaleko Erregistroa. Joxe Martin Sagardia plaza z.g. 20170 Usurbil

ORDUTEGIA: 8etatik-14.30etara

INFORMAZIO ESKAERA: 943371951 telefonoan / kontratazioa@usurbil.eus helbide elektronikoan.

EPEA: iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 lanegunetan.



Usurbilgo Udala



Kontratazio organoak lizitazio iragarkia argitaratuko du kontratatzailearen profilean, lizitazioan parte hartzeko eskaerak aurkeztu ahal izateko. Parte hartzeko eskaerak hamar eguneko epean aurkeztu ahal izango dira udal erregistroan, aipaturiko ordutegian, lizitazio iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta.

Parte hartzeko eskaerak gutun-azal itxian aurkeztu behar dira, eskatzailearen izena eta sinadura eta jakinarazpenetarako helbidea jarrita.

Gutun-azalean esaldi hau idatzi beharko da: "ESKAERA, PARTE HARTZEKO USURBILGO NERABEENTZAKO UDAL ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAN".

Parte hartzeko eskaerekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dira: Lizitatzaileren erantzukizunpeko adierazpena, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzeari buruz. Honako eredu honen arabera aurkeztu behar da:

“ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Izena:.....Helbidea:
..... NA zk., telefonoa....., Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasunaren jabe dela, bere izenean (edoren ordez, helbidea eta NA edo IFK (pertsona fisikoa edo juridikoa izan), entitatearen izenean,

ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

LEHENA. Parte hartu nahi duela honako zerbitzu honen kontratazioan: USURBILGO NERABEENTZAKO UDAL ZERBITZUA.



Usurbilgo Udala



BIGARRENA. Betetzen dituela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 146 artikuluko lehen atalak exijitzen dituen baldintzak, Usurbilgo Udaleko eguneko zentrora erabiltzaileak eramateko garraio zerbitzu kontratuaren esleipendun izateko; konkretuki:

- Nortasun juridikoa baduela eta, hala balegokio, ordezkaritza (Pertsona fisikoen kasuan, pertsona fisiko batek edo gehiagok parte hartu ahal izan dezaten ez da beharrezkoa izango aldi baterako enpresa elkartearen sortzea).
- Betetzen dituela kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalen baldintzak.
- Ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 60. artikuluko xedatutako kontratatze debekurik, eta egunean dituela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.
- Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako; eta, era berean, uko egiten diola, kasua bada, eskatzaileari legokiokeen atzerriko barruti jurisdikzionalari. (Atzerriko enpresen kasuan)
- Honako hau dela jakinarazpenak egiteko posta helbide elektronikoa: _____

HIRUGARRENA. Konpromisoa hartzen duela egiaztatze adierazpen honetako bigarren atalean aipatutako dokumentuen jabe dela eta haien baliotasuna, kontratuaren adjudikaziodun proposatzen badute edo eskatzen zaion edozein unetan.

Eta hala jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.n,

2016koarenan

sinadura

Stua.: _____ »



Usurbilgo Udala



20.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak plegu hauetako 28. puntuan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

21.- GONBIDAPENAK

Kontratazio organoak, Mahaiak proposatuta eta eskatzaileen nortasuna eta kaudimena egiaztatu ondoren, hautatuko ditu hurrengo fasera pasatuko direnak. Horiek, batera eta idatziz, gonbidatu egingo ditu aurkeztera beren eskaintzak eta dagozkien administrazio agiriak, 10 laneguneko epean, gonbidapena bidali eta biharamunetik kontatzen hasita.

Mahaiak gehienez ere hiru eguneko epea emango dio hautagaiari, zuzentzeko



Usurbilgo Udala



aurkeztutako dokumentazioan sumatutako akats edo omisio konpongariak.

Gutxienez hiru izangai gonbidatuko dira parte hartzera prozeduran.

Hautaketa irizpideak betetzen dituen izangai kopurua gutxienerako kopuru horren azpitik badago, kontratazio organoak jarraitu ahal izango du prozedura, exijitutako baldintzak betetzen dituztenekin; eta ezin izango da gonbidatu prozeduran parte hartzeko eskatu ez duen hautagairik edota baldintza horiek betetzen ez dituen hautagairik.

Administrazio-baldintzen orriotan adierazitakoa kontraesanean badago espedienteko gainerako dokumentazio teknikoarekin, orriotan ezarritakoak izango du lehentasuna.

22.- DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO ERA

Dokumentazioa aurkezteko moduak: Usurbilgo udal erregistroan, postaz, telefaxeaz, baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoak, Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Erkidegoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikulua xedatutako edozein tokitan.

Eskaintzak posta bidez bidaltzen badira, enpresariak, batetik, justifikatu egin behar du posta-bulegotik zein egunetan bidali duen; eta, bestetik, egun berean, iragarri behar dio kontratazio organoari, telex, fax edo telegrama bidez, bidali duela eskaintza, espediente zenbakia emanda, kontratuaren xedearen titulu osoa jarrita eta hautagaiaren izenarekin. Aipamenerako telefax, fax edo telegrama hartu dela egiaztatzeko, udal idazkariak eginbidea ezarriko du bertan.

Bi baldintzak ez badira betetzen, eskaintza ez da onartuko, baldin eta proposamen hori



Usurbilgo Udala



kontratazio organoak jasotzen badu iragarkian adierazitako epea bukatu eta gero. Edozein kasutan, aipatu data iragan eta hamar egun pasa eta gero, ez bada dokumentaziorik jaso, handik aurrera ez da onartuko.

Erabil daitezkeen baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoek bete behar dituzte, gainera, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 16. xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak.

23.- ESKAINTZAK

Izangai bakoitzak eskaintza bat besterik ezin du aurkeztu. Ezin izango du, bestalde, beste batzuekin eraturako aldi baterako elkartean inongo eskaintzarik izenpetu, baldin eta indibidualki aurkeztu badu berea edo beste aldi baterako elkarteren batean agertzen bada. Arau hauek hautsiz gero, hark izenpetutako eskaera bat bera ere ez da onartuko.

Eskaintza bat aurkezteak esan nahi du enpresariak baldintzarik gabe onartzen dituela Agiri honetako klausulak.

Negoiazioan parte hartzeko eskaintzak aurkeztu behar dira gutun-azal itxi batean, hautagaiek sinatuta, jakinarazpenetarako helbidea jarrita, gutun-azalaren izenarekin eta gainean esaldi hau idatzita duela: “Eskaintza, negoziatzeko Usurbilgo Nerabeentzako udal zerbitzuaren kontratazioa”. Gutun-azalaren izena hau da:

— “Eskaintza ekonomikoa eta dokumentazio teknikoa”.

Gutun-azalean sartu behar diren agiriek originalak edo kopia kautotuak izan behar dute,



Usurbilgo Udala



indarrean dagoen legeriaren arabera. Gutun-azalean ondorengo agiri hauek sartu behar dira, beren zerrenda zenbakidunarekin batera:

— ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

a) Eskaintza ekonomikoa

Honako eredu honen arabera aurkeztu behar da:

« jaunak/andreak (jakinerazpenetarako helbide honekin:, kalea, zk.; NAN: entitatearen izenean (IFK:)) diharduela, gonbidapena jaso dualarik eta jakin badakielarik zein diren baldintzak eta betebeharrak Usurbilgo nerabeentzako udal zerbitzua planifikatu, artatu eta kudeatzeko zerbitzua publizitadedun prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzeko,

ADIERAZTEN DU,

Ezagutzen duela kontratuaren oinarri diren klausulen agiria, hura osorik onartzen duela; eta, azkenik, konpromisoa hartzen duela kontratuaren xedea gauzatzeko zenbateko honen truke (Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta kontratistaren industri onura ere):

Hileko prezioa _____eurokoa (BEZ-ik gabe), gehi _____ euro (%_____ BEZ barne).



Usurbilgo Udala



.....n, 2016koarenan

Izangaiaren sinadura

Sinatua: _____».

b) Kontratazio Mahaiari eskaintzaren baldintzak baloratzeko aukera ematen dioten dokumentuak, 24. puntuan zehazturiko negoziazio gaien arabera.

24.- ESKAINTZEN BALORAPENA

Proposamenak baloratzeko eta ekonomikoki abantailarik handiena duen eskaintza zein den erabakitzeko, irizpide bat baino gehiago hartuko da kontuan.

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 150. artikulua xedatutakoa beteaz, ondorengo esleipen irizpideak ezartzen dira:

ESKAINTZA EKONOMIKOA: gehienez 51 puntu (C gutun-azala)

Prezioa (BEZ-etik salbuetsita) hileko 3.409'09 euro izango dira. Prezio hori eskaintzen duenak 0 puntu izango ditu.

Gainerako eskaintzak puntuatzeko honako eragiketa hau egingo da: puntuazio onenari kenduko zaio beherapenaren ehunekoaren eta eskaintza merkeenaren arteko aldea. Eskaintza baten beherapena aterako da honela:



Usurbilgo Udala



-Ehun eta diru-eskaintza bakoitzak lizitazio-prezioarekiko ematen duen ehunekoaren arteko aldea kalkulatzeko honako formularen arabera: $100x(1 - \text{proposamena/lizitazioa})$.

“Beharpen” handiena duen proposamenari “A beharpena” esango diogu eta gehieneko puntuazioa emango diogu, hau da, 51 puntu. Gainerako proposamenak (B) honako formularen arabera haztatuko dira.

$51 - (A \text{ beharpena} - B \text{ beharpena})$ eta zero (0) puntuazioa emango zaio eragiketa horren emaitza negatiboa bada.

ZERBITZUAREN PROPOSAMENA: Gehienez 49 puntu (B gutun azala)

- **Eskaintzaren balio teknikoa: 44 puntu**

- Oinarritze teorikoa eta proiektuaren helburuak (gehienez 8 puntu): Hemen, gai hauek izango dira kontuan: Esparru teorikoa eta testuinguruan kokatzea, Gaztematika-erako lotura, helburuak eta zehar lerroen tratamendua.

- Lan-metodologia (gehienez 28 puntu): Hemen, gai hauek izango dira kontuan: Arreta zuzena emateko proposamena, barne-lana antolatzekeo proposamena eta udalarekiko harremana, ekintzak, metodologia, azpiegiturak eta materiala, giza baliabideen koordinazioa: lan-taldearen antolaketa eta udalarekiko harremana, jazarpen egoeren aurrean Gaztelekuak jarraituko duten protokoloa, komunikazio-plangintza, udalarekin bilerak egiteko urteko egutegi-proposamena, egutegia eta ordutegiak, langile bakoitzak urtean eta hilabetero sartuko duen ordu kopurua, kronograma eta ebaluazioa.

- Proposamena udalerraren errealitatera egokitzea (gehienez 8 puntu): Hemen, gai hauek



Usurbilgo Udala



izango dira kontuan: Alor desberdinetan (Kultura, euskara, gazteria, kirola...) zerbitzurako esanguratsuak izan daitezkeen baliabide eta elkarteen ezagutza eta aipamena, baliabideekiko eskuhartze harreman proposamena eta proiektua udalerraren errealitatera egokitzeko ekintzak.

- Hobekuntzak: gehienez 5 puntu

Baldintza teknikoen agiriaren gainean proposaturiko hobekuntzak. Halakotzat joko dira kontratuaren xedeko zerbitzuaren kalitatea areagotzen dituztenak, betiere eskaintako prezioan eragin ekonomikorik ez badute eta udalak hobekuntza direla baloratzen baditu (adibidez egutegian, ordutegian, materialetan, bestelako hobekuntzak...).

Irizpide hauen bidez eskaintzak baloratu ondoren, negoziazio fasea ireki ahal izango da atal honekiko: prezioa.

25.- ENPRESA KONTRATISTAREN PERTSONAL LABORALARI BURUZKO ARAU BEREZIAK

Enpresa kontratistari, eta berari bakarrik, dagokio pertsonala hautatzea kontratua gauzatzeko adskribitutako lan taldea osatzeko, klausulen agiri honetan exijitutako titulazio eta ukanbeharrekin. Edonola ere, entitate kontratatzaileak baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzeko ahalmena izango du.

Enpresa kontratugilea ahaleginduko da bere lan taldean egonkortasunari eusten eta taldearen osaketan aldaketarik badago haiek puntualak eta justifikatutako arrazoiengatik izaten, zerbitzuaren funtzionamendu egokiak ez dezan aldaketarik pairatu. Edozein



Usurbilgo Udala



kasutan, beti entitate kontratatzaileari horren berri eman beharko dio.

Enpresa kontratistak bere gain hartzen du betebeharrak bezala, enpresari orori dagokion zuzendaritza ahalmena modu erreal, eraginkor eta etengabeen baliatzeko, kontratuaren exekuzioaz arduratzen den lan taldeko pertsonalaren gainean. Bereziki, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldaten negoziaketa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, ordezkapenak langileen baja edo ez egoteengatik, Gizarte Segurantzako lege betebeharrak, kotizazio eta prestazio ordainketak barne, hala dagokionean, lan arriskuen prebentzioaren alorreko legezko betebeharrak, diziplina ahalaz baliatzea eta, oro har, enpleguaren eta enplegatuaren arteko kontratu loturak dakartzan eskubide eta betebeharrak guztiak.

26. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia Iraunkorreko kide hauek osatuko dute:

1. Xabier Arregi Iparragirre, Alkatea, Mahaiko Lehendakari gisa
2. Xuban Zubiria Elexpe, Arloko Zinegotzia, Bokal gisa
3. Garazi Etxeberria San Miguel, Udal Idazkaria, Bokal gisa
4. Karmele Lizaso Ubera, Udal Kontuhartzailea, Bokal gisa
5. Maite Iribar Argote, Kultura, euskara eta gazteria saileko burua, Bokal gisa
6. Olatz De Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria, Mahaiko idazkari gisa

27. ESKAINTZAK IREKITZEA

Kontratazio Mahaia eratuko da, hain zuzen ere, udal web orrian Kontratatzailearen Profilean adieraziko den egun eta orduan. Ondoren, gutun-azalak ireki eta aztertu egingo



Usurbilgo Udala



dira. Une horretan, Mahaiak eskatu ahal izango ditu bidezkoztat jotzen dituen txosten teknikoak.

28. DOKUMENTAZIO ESKAERA

Balorapen txosten teknikoa jaso ondoren, abantaila gehien dituen eskaintza aurkeztu duen lizitzailea proposatuko du Kontratazio Mahaiak esleipendun izateko.

Esleipen proposamena jasotzen duen eskaintzaren titularrak Sektore Publikoko Kontratuen Lege Bateratuko 146.1 artikuluan zehazturiko baldintzak baldintzak bete eta hauek frogatzeko honako agiriak aurkeztu beharko ditu, (orijinalak edo kopia konpultsatuak) eta dagokion behin-betiko bermea ezarri izana, horretarako emandako 10 laneguneko epean.

a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak:

- Nortasun Agiri Nazionala, lizitzaileak bere izenean jardunez gero.

- Beste pertsona edo entitate bat ordezkatzuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze eskritura.

- Lizitzailea pertsona juridiko bat denean, eraketaren edo aldaketaren eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza legediaren arabera inskribatuta egon behar badu. Inskribatuta egon behar ez badu, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio egintza aurkeztu beharko da. Agiri horietan jardueraren arauak agertu beharko dute, beharrezkoa bada dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek lanbide



Usurbilgo Udala



edo merkataritza erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, dena delako estatuko legediak baldintza hori eskatzen badu.

– Hainbat enpresaburuk aldi baterako enpresa elkarte bat eratu eta lizitaziora jotzen badute, taldekide bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa ekarriko du, adjudikaziodun suertatuz gero. Era berean, proposamenean adieraziko dute aldi baterako enpresa elkarteko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

b) Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aipatzen diren kontratu debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.

c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekikoak betetzen dituela frogatzen duten agiriak.

d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa egiaztatzen du(t)en agiria edo agiriak, urteko negozio bolumena 45.000 eurotako izatea gutxienez.

e) Kaudimen teknikoaren edo profesionala, agiri hauek aurkeztuz:

– Azken bost urteetan nerabeentzako zerbitzuen kudeaketa, eta adieraziko dituzte haien zenbatekoa, eguneko bidai kopurua eta destino publikoa edo pribatua, eta horiek gehituko zaizkie horiei buruzko ziurtagiriak. Azken bost urteetan antzeko 2 zerbitzu eman dituztenek ulertuko da kaudimena dutela.

– Hezitzaile-koordinatzaileak zein hezitzaileak honako titulu hauek izan beharko dituzte:



Usurbilgo Udala



- Gizarte Hezkuntza, Gizarte Lan edo Maisutza diplomatura edo gradua edukitzea, edo erdi mailako edo goi mailako bestelako titulazioa (Giza Zientziak)
- Euskara maila Europako Erreferentzia markoaren C1 Gaitasun maila.

f) Atzerriko enpresek, kontratuan zuzenean edo zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako, mota guztietako auzitegi eta epaitegi espainiarren eskumenei men egingo dietela dioen aitortpena aurkeztu beharko dute, eta, behar izanez gero, lizitatzailari dagokion atzerriko eskumen foruari uko egingo dietela adieraziko dute.

g) Bermea ezarri izanaren ziurtagiria.

h) Erantzunkizun zibileko poliza.

Goiko a-tik e-rako puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Lizitatzailen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLTBaren 84. artikulua xedatutakoaren arabera. Aipatu ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen lizitatzailaren ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. **Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.**

29. BERMEA

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren %5a



Usurbilgo Udala



izango da, BEZa kenduta, kontratuaren guztirako iraupena kontuan harturik.

Berme hori jartzeko epea esleipenaren jakinarazpenean adierazitakoa izango da eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzailleari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, bere aldeko esleipena ez da burutuko.

Berme-epea amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

30. ESLEIPENA

Eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epearen barruan kontratuaren adjudikazioa egin beharko du kontratazio organoak.

Lizitazioa ez da inolaz ere hutsik utziko, pleguko irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenik baldin badago. Adjudikazioa arrazoituta egingo da eta jakinaraziko zaie izangaiei edo lizitatzailleei; bide batez, kontratatzailearen profileen argitaratuko da. Jakinarazpenak, kasu guztietan, beharrezkoa den informazioa edukiko du, baztertutako lizitatzailleak edo alde batera utzitako izangaiak aukera izan dezan, behar bezala oinarritutako errekurtsoa aurkezteko adjudikazio erabakiaren aurka. Zehazki, hurrengo alderdi hauek jaso behar ditu:

- Baztertutako izangaiei dagokienez, baztertze horretarako izandako arrazoiak azalpen laburra.



Usurbilgo Udala



- Adjudikazio prozeduratik baztertutako lizitzaileei dagokienez, euren eskaintza baztertzeko izandako arrazoen azalpen laburra.
- Edozein kasutan, adjudikaziodunaren izena eta adjudikaziodunaren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, erabakigarriak izan diren haiek bere eskaintza gainontzeko lizitzaileek egindako eta onartutakoetatik bereizi eta hautatzeko.
- Jakinarazpenean eta kontratzailearen profilean kontratua formalizatzeko epea adierazi behar da.

31. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Kontratuaren formalizazioa administrazio dokumentu batean egingo da, hamabost egun baliouduneko epearen barruan, adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora heltzeko. Kontratastak eskatu lezake kontratua eskritura publikoan jasotzea. Horren gastuak bere kargura izango dira.

32.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratua interpretatzen, aldatzen, amaitzen edo amaitzearen ondorioak zehazten sor litezkeen gorabeherak kontratazio-organoak erabakiko ditu. Erabaki horiek amaiera emango diote administrazio-bideari eta, horien aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legearen arabera. Dena dela, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkezteko aukera dute, Herri



Usurbilgo Udala



Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 116 eta 117 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

I. ERANSKINA

-Subrogatzeko langileak-

(Eranskin gisa web orrian)